



## Zorua ren laginak ateratzearekin ekingo zaio A-636 autobia birgaitzeari



***Ostegunean eta ostiralean lekukoak aterako ditu Bidegik, geruzen egoera egiaztatzeko***

Ostegun eta ostiral honetan, ekainak 23 eta 24, Bidegik laginak hartuko ditu Beasain eta Ormaiztegi arteko A-636 autobideko hainbat puntutan, teknikoki “lekukoak ateratzea” deitzen zaiona. Hori dela eta bi egun horietan Beasaingo 0,080 kp-aren eta Ormaiztegiko 4,200 kp-aren arteko zenbait errei-tarte itxita egongo dira laginak hartzeko. Une oro erreietako bat irekita egongo da. Lekukoak ateratakoan, errodadurako eta tarteko geruzen egoera ezagutu ahal izango da, eta autobideko zati bakoitzean egin beharreko jarduketak zehaztuko dira.

A-636 Beasain-Bergara errepidearen zorua birgaitzeko proiektuak 5,2 kilometroko zatia hartzen du, 0 kilometrotik Beasainen 5,200 kilometroraino Ormaiztegin. Lehenengo fresaketa lanak uztailaren 4an hasiko dira Ormaiztegin eta beheranzko noranzkoan egingo dira Beasaingo N-I errepidearekin bat egin arte. Autobiaren enborra bi noranzkoetan erabat berritzea barne hartzen du, bakoitzak bere bi errei, bazterbideak eta lotuneen parean abiadura aldatzeko erreiak dituela.

Errodadura-geruza fresatzeko eta birjartzeko lanak 5,2 kilometroko tarte osoan egingo dira. Deformatuen dauden zonetan, tarteko geruza ere berrituko da, eta Salvatore eta Antzizar bidezubien dilatazio-juntura guztiak ordeztuko dira, eta 8 espirak birjarriko dira trafikoaren edukiera neurtzeko. Era berean, beste erdibitzaile bat eraikiko da 2,200 kilometroaren parean.

Birgaitzearen une jakin batzuetan, 3,5 metrotik gorako zabalera duten garraio bereziek ezin izango dute autobiatik zirkulatu. Gorabeherarik gerta ez dadin, [@MOZKETAKA636CORTES](#) taldea aktibatuko da Telegram sare sozialean. Bertan, garraio-enpresek kontsulta egin beharko dute, eta, horrela, garaiz jakin ahal izango dute



A-636 errepidetik zirkulatu eta autobian blokeatuta gera ez daitezzen. Informazio hori ikusgai egongo da, halaber, N-I errepideak Ordizian eta Olaberrian dituen mezularitza aldakorreko paneletan eta A-636 errepidearen beraren paneletan. A-636 errepideko bi zerbitzuguneetan ere izango du eragina, eta bakoitza asteburu batean itxiko da, ostiral gauek astelehen goizera arte. Geltokien itxierak aldez aurretik iragarriko dira.

Zoruaren egitura birgaitzeko proiektuak 4.117.295 €-ko aurrekontua du, gehi BEZa, eta 7 hilabeteko egikaritze-epea. Bidegik autobiarene erabiltzaileek sortutako funtsekin egingo dio aurre inbertsioari.

2022/06/21

## Comienza la rehabilitación de la autovía A-636 con la extracción de muestras del firme



***El jueves y el viernes Bidegi procederá a la extracción de testigos para comprobar el estado de las diferentes capas***

Este jueves y viernes 23 y 24 de junio Bidegi va a proceder a la recogida de muestras del firme denominado técnicamente “extracción de testigos” en diferentes puntos de la autovía A-636 entre Beasain y Ormaiztegi. Con tal motivo durante estos dos días determinados tramos de carril entre el pk 0,080 en Beasain y el pk 4,200 en Ormaiztegi estarán cerrados para recoger las muestras. En todo momento uno de los carriles permanecerá abierto. La extracción de testigos permitirá conocer el estado de las capas de rodadura e intermedia y concretar las actuaciones necesarias en cada tramo de la autovía.

El proyecto de rehabilitación del firme de la A-636 Beasain-Bergara comprende un tramo de 5,2 kilómetros desde el kilómetro 0 en Beasain hasta el kilómetro 5,200 en Ormaiztegi. Los primeros trabajos de fresado comenzarán el 4 de julio en Ormaiztegi y se ejecutarán en sentido decreciente hasta su enlace con la N-I en Beasain. Comprende la renovación completa en ambos sentidos del tronco de la autovía con sus respectivos dos carriles, arcenes y los carriles de cambio de velocidad a la altura de los enlaces.

Los trabajos consistirán en el fresado y reposición de la capa de rodadura en todo el tramo de los 5,2 kilómetros. En las zonas más deformadas también se renovará la capa intermedia y se sustituirán todas las juntas de dilatación de los viaductos de Salvatore y



Antzizar y se repondrán las 8 espiras para el aforo de tráfico. Asimismo se construirá un nuevo paso de mediana a la altura del kilómetro 2,200.

En determinados momentos de la rehabilitación, los transportes especiales con una anchura superior a 3,5 metros no podrán circular por la autovía. Para evitar posibles incidencias se activará el grupo [@MOZKETAKA636CORTES](#) en la red social Telegram donde las empresas de transportes deberán consultar y así saber con tiempo si pueden circular por la A-636 y evitar quedar bloqueados en la autovía. Esta información también estará visible en los paneles de mensajería variable de la N-I en Ordizia y Olaberria y en las de la propia A-636. Las dos estaciones de servicio de la A-636 también se verán afectadas con un cierre de fin de semana cada una desde la noche del viernes hasta el lunes por la mañana. Los cierres de las estaciones se anunciarán con antelación.

El proyecto de rehabilitación estructural del firme cuenta con un presupuesto de 4.117.295€ más IVA y un plazo de ejecución de 7 meses. Bidegi hará frente a la inversión con los fondos generados por los usuarios de la autovía.

2022/06/21